

Argitaletxeko koordinatzailea
Aurelio Erdozain

Egilea
Lur Gallastegi

Azala eta marrazkiak
Alai Zubimendi Idarreta

Bildumaren diseinua eta maketazioa
Luis Alonso

Ale hau erabiltzeko eskubide guztiak erreserbatuta daude. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke. Debekatuta dago testu osoa edo zati bat informatikoki erabiltzea edo hedatzea, aurrez baimen idatzia izan gabe. Zatiaren bat eskaneatu edo fotokopiatzeko, baimena eskatu behar zaio ALAI ARGITALETXEA argitaletxeari (alai@alai.eus), alearen titularra den aldetik, edo CEDRO erakundeari (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Maskara lapurtuaren bila

© Testua: Lur Gallastegi
© Marrazkiak: Alai Zubimendi
© Goazen: EITB

@ Alai argitaletxea S.L., 2025



Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.

ALAI ARGITALETXEA, SL
alai@alai.eus
www.alai.eus
ISBN: 979-13-990213-0-1
Lege-gordailua: D 477-2025
EBn inprimatua - Printed in EU



Maskara lapurtuaren bila

Lur Gallastegi

Marrazkiak: Alai Zubimendi Idarreta





1

Sukaldean zebilen Oihane janari artean, plater goxo bat prestatzen, Bosko agertu zenean.

—Zer egiten duzu hemen?!

Harrituta geratu zen neska, mutila han ikusita.

—Zure bizitzako aukera eskaintzera nator.

—Nire bizitzako aukera? —Oihanek ezin zuen sinetsi, Bosko&Co sortu zutenean gertaturikoa eta gero, Bosko haren gurasoen lantokian agertzea, ezer gertatu ez balitz bezala.

—Aitaren kontaktuen bidez, inoiz pentsatuko ez zenukeen lan bat eskaintzera nator. Zure ametsetako lana!



VENEZIA

BURANO

KANAL HANDIA RIALTO ZUBIA

HOTELA

OPERA JAUREGIA SAN MARCO PLAZA



—Nire ametsetako lana? Non, baina? Nire ametsetako lana ez da zuretzat lan egitea inoiz izango!!!

—Ezetz asmatu non ospatzen den munduko inauteri famatuenetako bat?

Oihane pentsakor jarri zen.

—Rio de Janeiron? Venezian?

—Bost puztarri sukaldari! Bigarreanean asmatu duzu!

—Venezian? Eta zein lan egitea nahi duzu Venezian?!

Bosko azalpenak hasi zitzaion ematen.

Aitak lorturiko lana zen: Veneziako inauterietan, opera kontzertu garrantzitsua izaten zen urtero, antzoki ospetsu batean. Kontzertu horretara jende famatua joan ohi zen, eta hauentzat kontzertu ondorengo afaria prestatzea izango litzateke haien zeregina.

